

JAIIO AL DIRA BERRIAK?

Xenpelar Bertso Eskola

“GAURTIK AURRERA EUSKAL HERRIAN
EZ DUTE ESANGO BELA,

Iker Goñik Gipuzkoako Herriarteko
Bertsolari txapelketan botatako gurra.



Eta egia da. Xenpelar zenaren itzalean, baina zaletasunaren eguzkipean Oreretak ere bere bertsolari taldea osatu du, pausu txiki baina ziurrez bere ibilbidea egiten ari dena. Duela bost bat urte Mikel Aginagak ekin zion bideari Eskolarteko txapelketa, Xenpelar saria eta antzekoetan bere maila, eta bide batez Xenpelar Bertso eskolaren lana jendaurrean agertuz. Duela urte t'ardi Aitor Albistur, Ion Ansa, Iker Goñi, Iosu Oiartzabal eta Manex Mujika gehitu zitzaizkion. Bakoitzak bere bidea egina zuen ordurako, lehenengo biak Mikelekin batera Bertso Eskolan, Iker Goñik eta Manex Mujikak Eskolartean, Lizardi Sarian eta abarretan, eta Iosu Oiartzabalek bere aita bertsolariarekin.

Urte osoko entrenamenduen ondoren, Iazko Martxoan “Korrika Saria” jokatu zuten Landare elkartean. Partehartzaile batzuentzat jendaurreko lehen saio garrantzitsua izan bazen ere, maila polita agertu zuten seiek, eta Iosu Oiartzabal irten zen irabazle. Maiatzean, Injenieritza Eskolan egin zuten elkarrekin bere bigarren saioa. Uztailean, urtero jarraipena izango duen “Txantxangorri Saria” ospatu zen Zamaibiden. Seiek hartu zuten parte, eta berriro ere Iosu Oiartzabal izan zen garaile.

Iraila bukaeran Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketaren kanporaketa zela eta, Ereñozuko Urmia elkartean Iosu Oiartzabal, Manex Mujika eta Iker Goñi Hernaniko Unai Agirre, Ibon Miner eta Iker Alustizaren aurka lehiatu ziren, Xenpelar puntu erdirengatik aurrean geratu zelarik.

Lehen kanporaketa honetako bigarren saioa gure herriko Batasuna elkartean ospatu zen. Mikel Aginaga, Aitor Albistur eta Ion Ansa, Unai Agirre, Estitxu Eizagirre eta Iker Alustizaren aurretik geratu ziren sei puntuko aldeari esker 120 lagunetik gora bildu zituen afarian.

Bigarren kanporaketan ordea, Aitor Albistur, Ion Ansa, eta Manex Mujikak ezin izan zuten ezer egin Azpeitiko Imanol Lazkano, J.L. Gorrotxategi eta Urko Egañaren aurka, Zumaia zineman egindako saioan.

Halere, Xenpelar Bertso Eskolak bere ihardunean aurrera jarraitzeko asmoa azaldu du, bere bertsolariak herriko saioen bidez promozionatuz, eta berriak jaio direla adieraziz, azken eskolarteko bertsolari txapelketan Gorka eta Arkaitz gazteek erakutsi zuten bezala.

